

ALIZIA LURRALDE MIRESGARRIAN



Alizia lorategiko jarleku batean eserita zegoen eta, bat-batean, untxi bat ikusi zuen zera esanez:

-Ene, bada! Oso berandu iritsiko naiz! Eta lasterka alde egin zuen.

Alizia zur eta lur geratu zen. Untxiak erlojua zuen eta hitz egiten zekien. Jaiki eta haren atzetik joan zen. Untxiari segika, haitzulo batera iritsi eta ate batekin topo egin zuen. Baina atea txiki-txikia zen eta Aliziak ezin zuen zeharkatu. Neskatoak pena hartu zuen, atearen bestaldean lorategi Eder-ederra baitzegoen.

Orduan, botila bat ikusi zuen mahai gainean. Eskuan hartu eta zera irakurri zuen: “Esan nazazue”. Eta Aliziak, irakurri eta egin: botila erdia edan etaa, berehala, txikitzen eta txikitzen hasi zen, katakumeka bezain txikia egin arte.

-Hau poza! –esan zuen-. Lorategian sartu ahal izango naiz orain!

Baina ateko giltza mahai gainean zegoen eta, Aliziak, hain txikia izanik, ezin zuen hartu.

Orduan, pastel bat ikusi zuen. Hurbildu eta hauxe irakurri zuen: “Jan nazazue”. Eta irakurri eta egin: zati bat jan eta , berehala, handitzen eta handitzen hasi zen, erraldoiak bezain handia egin arte. Alizia negarrez hasi zen eta putzu ikaragarria egin zuen. Hain ziren malkoak handiak!

Bat-batean: Danba!!! Esnatu egin zen! Ametsa izan zen!

LEWIS CARROL

Alizia Lurralde Miresgarrian (Moldatua)

1. Osatu:

Hasieran, Alizia	ko	batean zegoen.
Zur eta lur geratu zen:	k,	zuen eta zekien.
Aliziak	ri jarraitu zion eta	sartu zen.

2. Zergatik zeharkatu nahi zuen Aliziak atea? Klikatu erantzun zuzena.

Ikusezina izan nahi zuelako.

Atearen bestaldean lorategi eder-ederra zegoelako.

Egarrituta zegoelako.

3. Edatzi ia EGIA ala GEZURRA den.

Alizia handitu egin zen botilakoa edan zuenean.

Alizia handitu egin zuen pastela jan zuenean.

Alizia txikitu egin zen botilakoa edan zuenean.

4. Osatu hurrengo esaldiak:

Aliziak txikiagoa izan nahi zuen, _____ an sartzeko.

Aliziak handiagoa izan nahiz zuen, _____ gainean zegoen _____ hartzeko.

5. Sartu al zen, azkenean, Alizia lorategian?

Zergatik?